

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA , 2018KO MAIATZA


## Euskal AEko industri jarduera %2,2 hazi zen 2018ko maiatzean

### Industri Produkzioaren Indizeak %2,5eko gehikuntza izan du 2018ko lehen bost hiletan

Eustaten datuen arabera, 2018ko maiatzean %2,2 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, 2017ko hil beraren aldean. 2018ko lehen bost hiletan %2,5eko hazkundea izan da, 2017ko aldi beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, %1,9 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, 2018ko apirilarekin alderatuta.

### Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%) Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2018ko maiatzeko indizearen bilakaerak, 2017ko maiatzekoaren aldean, emaitza ezberdinak dakartza sektore industrial handietan. Ekipoko ondasunak %7,8 hazi dira, eta Bitarteko ondasunak %1,2, baina Energia %3,4 jaitsi da. Kontsumo-ondasunak, oro har, %3,7 jaitsi dira. Haien barnean, Kontsumo-ondasun iraunkorrak %16,2 jaitsi dira, eta Ez-iraunkorrak %1,6 gehitu.

2018ko maiatzeko hil arteko aldakuntza ere, 2018ko apirilaren aldean, oso bestelakoa izan da industri talde handietan. Ekipoko ondasunak %2,4 gehitu dira, eta Tarteko ondasunak %1,9, baina Energia %0,4 murriztu da. Kontsumo-ondasunak, guztira, %1,1 gehitu dira, zeren Ez-iraunkorrek %1,8 gehitu baitira eta Iraunkorrek %0,9 jaitsi.

Euskal AEko industriako pisurik handieneko sektoreen artean, hauek eduki dituzte hazkunderik handienak 2018ko maiatzean, urte artean: Makineria eta ekipoa eta Material eta ekipo elektrikoa, %8,2ko gehikuntzarekin; Garraio-materiala, %7,6koarekin.

Jaitsierak urte artean, hauenak izan dira: Zura, papera eta arte grafikoak, %4,2ko jaitsierarekin; Energia elektrikoa, gasa eta lurruna, %1,5ekoarekin.

### **1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunderatasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak**

	<b>m / m-12</b>
<b>A38 SEKTORIZAZIOA</b>	
<b>SEKTORE NAGUSIAK<sup>(1)</sup></b>	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	2,6
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-1,5
09 - Kautxua eta plastikoak	0,3
13 - Makineria eta tresneria	8,2
14 - Garraio-materiala	7,6
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	2,1
12 - Material eta tresneria elektrikoa	8,2
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-4,2

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

**Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea**

Maiatzeko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera lurraldeetan hauxe izan da: Gipuzkoan +%8,4, Araban +%1,7 eta Bizkaian -%3,3.

**2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2018ko Maiatza**

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	Mai2018 / Mai2017	A(Mai2018) / A(Mai2017)(*)	Mai2018 / Api2018	Api2018 / Mar2018
<b>Indize orokorra</b>				
<b>Euskal AE</b>	<b>2,2</b>	<b>2,5</b>	<b>1,9</b>	<b>-2,7</b>
Araba/Álava	1,7	2,3	2,2	-3,1
Bizkaia	-3,3	-2,0	0,7	-2,6
Gipuzkoa	8,4	7,5	2,8	-2,6
<b>ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK</b>				
Kontsumo-ondasunak	-3,7	-1,8	1,1	-3,8
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-16,2	-4,2	-0,9	-8,9
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	1,6	-0,8	1,8	-1,9
Ekipo-ondasunak	7,8	5,7	2,4	-0,4
Bitarteko ondasunak	1,2	1,3	1,9	-2,4
Energia	-3,4	3,2	-0,4	-0,8

(\*) 2018ko urtarrietik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2017eko aldi beraren aldean

**Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea**

**Informazio gehiagorako:**

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62